**Zertarako balio dute RSSek?**
RSS bidez Gipuzkoangazte.info blogean argitaratutako azken-azkenaren berri izango duzu. Artikulu berri bat argitaratzen den bakoitzean automatikoki mezu bat jasoko duzu. Horretarako interesatzen zaizun RSSan harpidetza besterik ez duzu egin behar. RSSak herrika edo gaika jaso ditzakezu, eta zeuk aukeratuko dituzu gehien interesatzen zaizkizunak.

RSSak non eta nola jaso?
RSSak jaso ahal izateko bi aukera dituzu:

- RSSak kudeatzeko Web zerbitzuak erabilita.
- Zure ordenagailuan programa bat instalatuta.

WEB ZERBITZUAK: RSS mezuak edozein ordenagailutan kontsultatu nahi badituzu.

Jarraian azaltzen diren web orrietako bat aukeratu, kontu bat ireki eta bertan azaltzen diren pausoak emanda RSSak jasotzeko zerbitzua izango duzu.
- http://www.bloglines.com
- http://www.reader.google.com
- http://www.alesti.org

*BLOGLINES ADIBIDEA:*



**ORDENAGAILUAN INSTALATZEKO PROGRAMAK**: RSS mezuak normalean zure etxeko edo laneko ordenagailuan kontsultatzen badituzu.

Jarraian azaldutako web orri batean sartu eta bertan azaltzen diren pausoak emanez RSS jarioak kudeatzeko programa bat instalatuko duzu zure ordenagailuan.

http://www.feedreader.com
http://rsspopper.blogspot.com
http://www.rssowl.org/

*OUTLOOKen INSTALATUTAKO PROGRAMAren ADIBIDEA:*

